


BAPOREA



BILDUMA

Hilezkorrak

Aitor Arana

2007ko "Baporea" Saria



BAT - BEZHIG

ESPAZIONTZI isila zeruan azaldu zenean, eguraldia zoragarria zen Lur planetako eskualde ikusgarri hartan. Urtaroak aspaldi desagertu ez balira, udaberria zela esan ahal izango zen. Eta, benetan, udaberriaren antzeko aroa jabetu zen azken bizpahiru mendeetan ia planeta osoaz: garai bateko udaberriaren eta udaren arteko urtaro luzea. Planetaren Iparburua eta Hegoburua ziren garai bateko itxura bertsua mantentzen zuten bakarrak; hau da, hartz zuriak eta pinguinoak kenduta, ia animaliarik ez zen bizi bertako izotzetan, eta haize hotza zen inguruetan jaun eta jabe.

Eane izeneko gizaki eme gazteak ongi baino hobeki zekien hura guztia, aginte-gelako kontrolei eraginda espaziontzia airean zintzilik geldiarazi zuenean, lurreko belarretik, zuhaitzetatik eta hondartzatik berrogeita hamar metro

eskaseko altueran. Izan ere, Lurrean jaioa ez izan arren, bertan zuen berak jatorria, arbaso lurta-rrenganaino heltzeko Martekoen lotura behar bazuen ere.

Zutitu egin zen, pozik, irribarretsu.

Aginte-gelatik irten, eta ondoko behatokira joan zen azkar: hartatik, espaziontzia-aren aurrealdeko eta ezker aldeko paisaia ikus zitekeen. Eskuak ipurdi gainean batu zituen, paisaiari atsegin handiz begiratzen ziola.

Itsasoa.

Egia zen urdina zela, eta berdexka, eguzkia-
ren argitan eder. Zazpigarren planetan, Uranon, ez zegoen itsasorik. Eanek askotan entzun eta irakurri zuen hartaz, eta uranotarrek Ama Lur deitzen zioten planetaren grabazio-
etan ere anitzetan ikusi zuen. Baina ez zegoen bertatik bertara ikustea bezalakorik. Hura ikus-teagatik soilik, merezi zuen Uranotik Lurrera gutxieneko distantzia zegoenean egin behar-
reko bidaia egitea; 2.600.000.000 km-ko distantzia, alegia. Asteetako bidaia espaziala egin behar izan zuen bakar-bakarrik, baina poza-
rren zegoen orain, pixka batez bere eginkizuna ahazturik.

Paisaiari begira jarraitu zuen, bihotza lasai eta arima bare zituela, itsasoa bezalaxe.

Laster, nahi zuenean, espaziontzia hondartzara eraitsi eta itsaso tentagarrian bainatu ahal izango zen. Une hartan, besterik ez zuen buruan.

Begirada itsaso baretik hondartza horixkara joan zitzaion. Basoaren eta itsasoaren arteko muga nabarmena zen hondartza. Olatuen apar zuriak are nabarmenago irudikatzen zion ertza, gainera. Basoa, berriz, zabala zen. Ez oso trinkoa leku hartan, han-hemenka belarrak estalitako soilguneak ikusten baitziren. Oinen azpian zeuzkan zuhaitzak haritzak zirela esango zukeen neskak, baina ez zegoen ziur. Uranoko hiri eta parke babestuetan hazten ziren zuhaitzen arbasoak ziren, hori bai.

Paisaia ederraz eta eguzki goxoaz gozatuz minutu luzeak eman ondoren, behatokitik atera eta bere gelara abiatu zen Eane. Bertako plastikozko armairutik, jantzita zermanaren antzeko txandal moduko jantzi bat atera, eta azkar-azkar aldatu zen. Bi jantzien arteko alde bakarra loditasunean eta kolorean zegoen: espaziontzian egotekoa grisa eta zuria zen; kanpora irtetekoa,

berriz, berdea, eta bestea baino zertxobait lo-diagoa. Kanpoan begiak babesteko betaurrekoak hartu zituen: Uranon bidaia hartarako proba fisiko gogor asko egin bazituen ere, ez zekien –esaterako– Lurreko haizeak berak nola eragin ziezaiokeen. Era berean, defentsarako gaiez eta gailuz hornitutako gerriko bat atera zuen armairutik, ikus zitekeenez pistola moduko arma bat zeukana, eta gerri inguruan lotu zuen.

Kanpora irteteko irrika biziak hartuta, agintegelara itzuli zen, ia lasterka. Bertako eserleku nagusian jarri, eta eskueran zeukan lauki urdin baten gainean eskua jartzea nahikoa izan zuen Uranoko kideekin telebista bidez konektatzeko. Berrogei urte inguruko gizon baten irudia agertu zitzaion begien aurrean, kontrol arteko pantaila batean. Gizaki lurtarrek, martetarrek, jupitertarrek, saturnotarrek eta uranotarrek eratuta zeukaten komunikatzeko errepikagailu-sare trinkoari esker, Eaneren irudia ere argi eta garbi heldu zen une batean Uranora.

–A, Eane! –esan zuen gizonak–. Denbora pixka bat eman duzu paisaiari begira, e?

–Bai –neskaren ahotsa ezia zen oso–. Barkatu gehiegi izan bada.

–Ez, ez. Lasai –gizonak irribarre egin zuen eta alde batera begiratzen zuela ikusi zen–. Zure ontzia ongi kokaturik daukagu monitorean, eta ez gara kezkatu.

–Hondartzan lurreratu eta kanpora aterako naizela esateko deitu dizuet.

–Ongi. Jasoa. Lanari berehala ekiteko asmoa daukazu?

–Bai eta ez –irribarre egin zuen Eanek.

–Ez esan, ez esan... –gizona ere irribarretsu zegoen–. Hemen hainbeste aldiz esan didazuna egingo duzu lehenik, ezta?

Neskaren irribarrea handitu egin zen.

–Ondo da –jarraitu zuen gizonak–. Zure ontziko sentsoreek eta gure radarrek ez digute ezer arraroren berri ematen. Badakizu gizakia eguzki-sisteman hedatzen hasi zenean Lurra, guztiz gainpopulatuta egon arren, nabarmen hustu zela, eta, horri esker, basapiztiak ugaritu egin zirela... –eten txiki bat izan zen hitz-jarioan–. Baina zure inguruan detektatu dugun bakarra izurde-talde bat da, itsasoan, hondartzatik aski hurbil. Kontuz ibili, hala ere. Ez kendu esku-muturreko komunikagailua; adi-adi edukiko gaituzu hemen.

–Eskerrik asko, Ikel –erantzun zuen Eanek begiak itxiz, esaten zaiguna aspaldi dakigunean bezala: pazientzia agortuko balitzaigu bezala.

–Ez jarri aurpegi hori, Eane –ekin zion berriz neskaren solaskideak–. Ondo dakigu lurtarrek zakarrak izateko joera dutela. Beraz, ez jarri aita errietan ari zaion neskatoaren aurpegia, aurreikusitako epean hemen onik ikusi nahi baitzaitugu itzuleran. Entzun duzu?

–Hala izango da. Mila esker. Gero arte!

–Ondo ibili!

Pantaila itzali ondoren, Eanek espaziontzia-
ren esku-agintea konektatu zuen. Txoria txitak
dituen habian pausatzen den goxotasunaz lurreratu zen berez lau pertsonarentzat diseinatu zegoen espaziontzi txikia. Hegazkin alokatu bat balitz bezala, eskailera txiki bat agertu zen ontziaren behealdean, behatokiaren azpiazpian.

Eane hartatik jaitsi zen.

Hondartzako hondarra Uranokoa bezalakoa zela sentitu zuen berehala.

Eguzkiaren laztan beroa, berriz, bizitzako gauzarik goxoena iruditu zitzaion. Azalean esprai babesgarria zuen emana, noski, gorputz osoan,

baina horrek ez zion galarazi eguzki amandreak sortutako zirrara bizia sentitzea. Begiak itxi zituen, aurpegia haren aldera mugitzea batera.

Gero, eskumuturreko komunikagailuari irudia kendu ondoren, arropak erantzi eta hondar gainean utzi zituen pozarren. Gerrikoko pistola jaso, eta lepotik zintzilik jarri zuen sokatxo baten bidez.

Korrika uretara joan eta itsaso abegikorrean sartu zen, egun hura baino lehen mila milioi aldiz amestu bezala.